



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 15a

80. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar bezala arautu eta planifika dezan gure erkidegoko garapen berriztagarria. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak ezetsi du (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Abeltzaintza Estentsiboari buruzko Plan Estrategikoari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Belateko eta Almandozko tuneletako haizagailuak aldatzeko obrari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (4. or.).
- Galdera, garraio-txartel bakarrari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, eremu ez euskaldunean funtzio publikoan sartzeko hizkuntzak merezimendu gisa baloratzeko irizpideei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia zehazteko egin diren jardunaldiei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, genero indarkeriaren Nafarroako datuei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (7. or.).
- Galdera, atzerriko hezkuntza-sistemetako unibertsitateko irakaskuntzen homologazioari buruzko errege-dekretuaren zirriborroari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nekazaritza Politika Erkideari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, enplegu-zentro bereziendako “aurrekontu-orekako deialdiari” buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako errepide sarea erabiltzeagatik ordainketa-sistema ezartzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, zerga-arloan ingurune erakargarri bat sortzearen Nafarroako Gobernuak duen proposamen politikoari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (9. or.).
- Galdera, proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzeko Nafarroako Gobernuak darabiltzan irizpideei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen talde-immunitateari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Estatuarekiko Lankidetzarako Bitariko Batzordean lortu diren azken akordioei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 2030eko Agendarekiko duen konpromisoari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (12. or.).
- Galdera, edateko ura Azkoienerraino iristeari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Estatu Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzarako Bitariko Batzordeak hartutako erabaki buruzkoa, Nafarroako 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarria dela-eta. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Pirinioko, Zangozako eta Tafallako batxilergoko ikasleen eskolatzeko baldintzei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero egin du (14. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako murrizketen derrigorrezkotasunari buruz Lurralde arteko Kontseiluak 2021eko ekainaren 2an hartutako erabakiari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzorderako izendatu beharreko lau kide hautatzea. Hautagitzak aurkezteko epea luzatzea (16. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 5/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 2koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko (17. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar bezala arautu eta planifika dezan gure erkidegoko garapen berriztagarria.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2021eko ekainaren 9an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar bezala arautu eta planifika dezan gure erkidegoko garapen berriztagarria. Mozioa Laura Aznal Sagasti andreak aur-

keztu zuen eta 2021eko maiatzaren 25eko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Abeltzaintza Estentsiboari buruzko Plan Estrategikoari buruzkoa.*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Abeltzaintza Estentsiboari buruzko Plan Estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera egiten dio Landa Garapeneko kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Noiz aurkeztuko duzu Abeltzaintza Estentsiboari buruzko Plan Estrategikoa?

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Belateko eta Almandozko tuneletako haizagailuak aldatzeko obrari buruzkoa.*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, Belateko eta Almandozko tuneletako haizagailuak aldatzeko obrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariari Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Belateko eta Almandozko tuneletako haizagailuak aldatzeko obretarako Nafarroako Gobernuak duen plangintza xehea, trafikoaren segurtasun-neurrii eta obra egiteko egutegi orokorrari dagokienez.

Nafarroan, 2021eko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, garraio-txartel bakarrari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, garraio-txartel bakarrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak batzordean ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk dira Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin dituen azken aurrerabideak garraio-txartel bakarra ezartzeari begira?

Iruñean, 2021eko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, eremu ez euskaldunean funtzio publikoan sartzeko hizkuntzak merezimendu gisa baloratzeko irizpideei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, eremu ez euskaldunean funtzio publikoan sartzeko hizkuntzak merezimendu gisa baloratzeko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Galdera heldu den ekainaren 15erako deituta dagoen Foru Araubideko Batzordearen bilkuran egin ahal izatea eskatzen dut.

Nafarroako Gobernuak zer irizpide darabil eremu ez euskaldunean funtzio publikoan sartzeko euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzen ez uzteko eta, aldiz, frantsesez, ingelesez edo alemanez jakitea bai?

2021eko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia zehazteko egin diren jardunaldiei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunakurkeztutako galdera, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia zehazteko egin diren jardunaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan asteko ostiral arratsaldean eta larunbat goizean (ekainaren 4an eta 5ean), Osasun Departamentuko, Zuzendaritza Nagusiko eta erakunde autonomoetako zuzendaritzako langileek, lan-jardunaldi batzuk egin zituzten, kontseilaria buru zela, El Toro ostatuan, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia zehazteko. Jardunaldi horiek MC Mutual mutua pribatuko profesionalak koordinatu dituzte.

Hiru txostengileetatik bi MC Mutualekoak dira: Rafael Manzanera (Zerbitzu Mediko eta Asistentzialen dibisioko zuzendariaren ondokoa) eta Diego Moya (entitate horretako osasun-laguntzaren kalitateko teknikaria).

Jardunaldien agendan honako hauek ageri dira:

– Kudeaketa gaitasuna eta malgutasuna.

– Ikerkuntza, berrikuntza eta garapena.

– Oinarrizko Osasun-laguntza.

– Berrikuntza gaixoengan eta profesionalen inplikazioa.

Izenburu horien azpian osagarri oso interesgarriak dautza; esaterako, sistemaren finantzaketa, kudeaketa klinikoko unitateak bultzatzea, berrikuntza osasun publikoan, Nafarroako Oinarrizko Osasun-laguntzari buruzko Plan Estrategikoa, lan-talde ez diren biztanleria-taldeetan osasuna sustatzeko programak, profesionalen fidelizazioa, eta abar.

Oso kezkarria da eginkizun hain eztabaidagarria duten entitate pribatuak (enpresa-mutuak) erreferente izatea Osasun Departamentuaren egungo zuzendaritzarentzat.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

• Osasun Departamentuan ez al dago arlo horretako aditurik lan-jardunaldiak egiteko eta osasun-arloko estrategia zehazteko?

Iruñean, 2021eko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, genero indarkeriaren Nafarroako datuei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, genero indarkeriaren Nafarroako datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroan genero-indarkeria dela-eta zenbat kasu salatu dira azken hiru hilabeteotan? Nafarroako Gobernuak zer jarduketa berri planteatuko ditu indarkeria matxista guztiak desagerrarazteko bidean aurrerabidea egiteko hezten, kontzientziazten eta salatzen jarraitzeko?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, atzerriko hezkuntza-sistemetako unibertsitateko irakaskuntzen homologazioari buruzko errege-dekretuaren zirriborroari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, atzerriko hezkuntza-sistemetako unibertsitateko irakaskuntzen homologazioari buruzko errege-dekretuaren zirriborroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkartearen eledun Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak ekainaren 17ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer iritzi dio atzerriko hezkuntza-sistemetako unibertsitateko irakaskuntzen homologazioari buruzko errege-dekretuaren zirriborroari?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nekazaritza Politika Erkideari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Nekazaritza Politika Erkideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nekazaritza Politika Erkidea autonomia erkidegoen, foru erkidegoen eta ministerioaren arteko azken bileren ostean?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, enplegu-zentro bereziendako “aurrekontu-orekako deialdiari” buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, enplegu-zentro bereziendako “aurrekontu-orekako deialdiari” buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ez du oraindik egikaritu enplegu-zentro berezien finantza-orekarako laguntzetarako “aurrekontu-orekako deialdia”. Zergatik?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Nafarroako errepide sarea erabiltzeagatik ordainketa-sistema ezartzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako errepide sarea erabiltzeagatik ordainketa-sistema ezartzeari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak Bruselara bidali duen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean proposatu du ordainketa-sistema ezartzea Estatu-ko errepide-sarean. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Errepide Sarean proposamen hori aplikatzea aurreikusten al du?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, zerga-arloan ingurune erakargarri bat sortzearen Nafarroako Gobernuak duen proposamen politikoari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera, zerga-arloan ingurune erakargarri bat sortzearen Nafarroako Gobernuak duen proposamen politikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Jesús Valdemoros Erro andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-19aren kasu-kopurua jaisteari eta txertatzeari esker ziurgabetasuna jaisten ari den honetan, eragile ekonomikoek erabakiak har ditzaten ahalbidetzeko unea da. Zerga-arloan dugun autonomia kontuan hartuta, zein da zure proposamen politikoa zerga-arloan ingurune erakargarri bat sortzeko?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Galdera, proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzeko Nafarroako Gobernuak darabiltzan irizpideei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzeko Nafarroako Gobernuak darabiltzan irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure Gobernuak zer irizpide darabil proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzeko?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen talde-immunitateari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen talde-immunitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2021eko ekainaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

COVID-19aren aurkako txertatzearen abiadura ikusita, noiz uste duzu lortuko duela Nafarroako Foru Komunitateak talde-immunitatea?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Estatuarekiko Lankidetzarako Bitariko Batzordean lortu diren azken akordioei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, Estatuarekiko Lankidetzarako Bitariko Batzordean lortu diren azken akordioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 2021eko ekainaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer informazio eman diezagukezu Estatuarekiko Lankidetzarako Bitariko Batzordean lortutako azken akordioei buruz, zeinei esker ekidin baita konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa aurkeztea? zein da zure balorazioa?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Orkestra Sinfonikoari dagokionez, parlamentari naizen honek nahiko nuke orkestraren egoerari eta etorkizuneko asmoei buruzko balorazio labur bat bat egitea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak 2030eko Agendarekiko duen konpromisoari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak 2030eko Agendarekiko duen konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak 2021eko ekainaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak 2030eko Agendarekiko duen konpromisoa ekintzekin eta adierazleekin frogatzen ari da, Europako Batzordearen azken txostenek erakusten duten moduan. Zure ustez, Nafarroak aurrerabidea egin behar du arlo horretan erreferente izanez?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, edateko ura Azkoienerraino iristeari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, edateko ura Azkoienerraino iristeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak 2021eko ekainaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du edateko ura Azkoienerraino iristeari eta horrek inguru horretan izanen dituen ondorioei buruz?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzarako Bitariko Batzordeak hartutako erabaki buruzkoa, Nafarroako 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarria dela-eta.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzarako Bitariko Batzordeak hartutako erabaki buruzkoa, Nafarroako 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarria dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique Legebiltzarreko Mahaia-ri eskatzen dio erregistroan 10-21/PES-00214 zenbakia daraman galdera idatzia gaurkotasun handiko galdera bihur dezan eta heldu den ekainaren 17an eginen den kontroleko osoko bilkuran erantzun dadin. Hona galdera:

Jendaurrean informatu denez, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzarako Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

“Lehena. Nafarroako 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea dela-eta adierazi diren desadostasunak aztertze eta gainditze aldera Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzarako Bitariko Batzordeak hartutako erabaki bidez eratutako lantaldeak egin-

dako aurretiazko negoziazioekin bat, bi aldeek uste dute desadostasun horiek honako konpromiso honen bidez gainditu direla:

Egiten dugun irakurketa da arau horren hamazazpigarren xedapen gehigarriak Nafarroako Gobernuari agintzen diola azterlan bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko pentsiodunen egoera aztertze, eta azterlan horren emaitzak organo eskudunei helaraziko zaizkiela, baina ez duela inolaz ere xede izanen Gizarte Segurantzaren sisteman sartzen diren pentsioak foru erkidegoan osatzeko aukera aztertzea”.

Nafarroako Foru Komunitateak, zerga-arloan dauzkan eskumenak baliatuta, kuota diferentzialaren zenbait kenkari dauzka onetsita Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen Foru Legean, alarguntza-pentsioak, kotizaziopeko nahiz kotizazio gabeko erretiro-pentsioak eta zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak jasotzen dituzten pertsonentzat.

Hori guztia ikusita, honako galdera hau aurkezten da, idatziz erantzun dakion:

Departamentuaren ustez, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarriaren gaineko akordio horrek ez al dakarkie inolako mugarik alarguntza-pentsioak, kotizaziopeko nahiz kotizazio gabeko erretiro-pentsioak eta zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak jasotzen dituzten pertsonentzat kenkari bidez osatzeari dago-kionez Nafarroak egun dauzkan eskumenei, eskumen horiek ukitu gabe geratuta, halako moduan non, etorkizunean egokia dela ikusiz gero, posible izanen baita egungo kenkariaren zenbatekoak igotzea nahiz jaistea?

Iruñean, 2021eko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Pirinioko, Zangozako eta Tafallako batxilergoko ikasleen eskolatzeko baldintzei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotatutako handiko galdera, Pirinioko, Zangozako eta Tafallako batxilergoko ikasleen eskolatzeko baldintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honek 2021eko ekainaren 17an eginen duen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan batxilergoa egiteko aurrematrikula-prozesuak agerian utzi du diskriminazio negatiboa gertatzen dela bere hezkuntza-eskaintza publikoan batxilergoa sartzeko ez den lekuetatik heldu diren ikasleen kasuan.

Bere ikastetxeetan edo eremuan halako eskaintzarik ez duten ikasle horiek Iruñera etorri behar dute irakaskuntza publikoan ikasten jarraitu nahi baldin badute. Onarpen-baremoa aplikatuta, ikasle horiei ez zaie punturik ematen beren ikastetxea edo bizilekua gertu egoteagatik. Hezkuntza Departamentuak ikasle horiei ikaspostu publiko bat bermatzeko konponbiderik eskaini ezean, arazo bat izanen dugu horien eskolatzearekin.

Hezkuntza Departamentuak aurreikusita al dauka Pirinioko, Zangozako eta Tafallako ikasleei batxilergoa ikastetxe publiko batean egiteko ikaspostu bat, bai eta eskola-garraioa ere, bermatzeko prozedura?

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, COVID-19aren aurkako murrizketen derrigorrezkotasunari buruz Lurralde arteko Kontseiluak 2021eko ekainaren 2an hartutako erabakiari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, COVID-19aren aurkako murrizketen derrigorrezkotasunari buruz Lurralde arteko Kontseiluak 2021eko ekainaren 2an hartutako erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez zuen errefusatu COVID-19aren aurkako murrizketen derrigorrezkotasunari buruz Lurralde arteko Kontseiluak 2021eko ekainaren 2an hartutako erabakia, eskumenak inbaditzeagatik eta forutasunaren aurkako eraso izateagatik?

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kide hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikularekin bat, hona erabakia:

1. Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beha-

rreko lau kide aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea **2021eko irailaren 30eko 17:30ak** arte luzatzea (10-21/ELC-00003).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

5/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 2koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 5/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 2koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Aipatu foru lege-dekretua 2021eko ekainaren 15eko 138. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Nafarroako Parlamentuari igorri dio, horrek baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2021eko ekainaren 24ko Osoko Bilkuran eginen direla ekainaren 2ko 5/2021 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa (10-21/DLF-00005).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

5/2021 Foru Lege-dekretua, ekainaren 2koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

COVID-19ak eragindako osasun publikoaren larrialdi egoera gertatu zenetik, zeinaren ondorioz Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia egoera deklaratu baitzuen eta Espainiako

lurralde osoan alarma egoera deklaratu baitzen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Gobernu arlo bateko eta beste neurriak hartuz eta onetsiz joan da, osasun larrialdiak eragindako ondorio larriak arindu nahian.

Neurri horien artean nabarmendu beharrekoak dira zerga arlokoak, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren bidez esleituriko eskumenak erabiliz hartu direnak.

Besteak beste, 7/2020 Foru Legearen bidez, 4/2020 eta 6/2020 foru lege-dekretuen bidez eta 1/2021 Foru Lege-dekretuaren bidez neurri fiskalak onetsi dira, koronabirusaren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Pandemiak 2021. urtean izaniko bilakaera dela eta, Nafarroako Gobernuak neurri murrizgarriak hartu behar izan ditu, bereziki ostalaritzari eta jatetxeei eragin dietenak, bai eta bingo eta joko aretoei ere. Hala bada, foru lege-dekretu honen bidez, zerga arloko zenbait neurri berri ezartzen dira, COVID-19ak jarduera ekonomiko jakin batzuen esparruan izandako eraginari aurre egiteko.

2021eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 9ra arte –hots, alarma egoera bukatu den egunera arte–, tarteka, batzuetan murrizketak ezarri dira ostalaritzako establezimenduen barnealdean, eta beste batzuetan, barnealdeko zerbitzua ez zen posible; bingo eta joko aretoen kasuan, itxi eta jarduera gelditu behar izan dute.

Nafarroako Foru Komunitatean Jokoaren gaineko Tributuak arautzen dituen abenduaren 28ko 27/2016 Foru Legearen 9.2 artikulua arabera B motakoak diren makinak (saria duten jolas-makinak) taberna eta jatetxeen barnealdean egoten dira, bai eta bingo eta joko aretoetan ere, eta, horregatik, ezarritako murrizketek eragina izan dute bezeroek halakoak erabiltzeko garaian. Makina horien ustiapena lotzen zaie 27/2016 Foru

Legean jokoari buruz arautzen diren tributuei; arauketa horretan, urteko kuota bat ezartzen da, hiruhilekoko lau ordainketatan banatua.

Azaldu bezala, nabarmen pairatu du jarduerak, eta bidezkoa da, bada, kuota hori egokitzea, murrizketek sektorean izan duten eragina aintzat hartzeko.

Erreferentziatzen harturik 2021eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 9ra bitarteko aldia, %35eko murriztapena egin beharko litzateke urteko kuota. Jada egin dagoenez 2021eko lehen hiruhilekoko kuota ordainketa, murriztapena gainerako hiru hiruhilekoetan banatu beharko litzateke; ondorioz, horietako bakoitzean kuota %46,67 murriztuko litzateke.

Horiek horrela, eta kontuan izanik alarma egoera bukatu ondotik litekeena dela jarduera bete-betean ez suspertzea, egoki jotzen da %50eko murriztapena ezartzea aipaturiko hiruhilekoko kuota horietan.

Halaber, lehen aipaturiko neurri murrizgarriak konpentsatze aldera, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusiak martxoaren 8ko 18/2021 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez deialdi bat onetsi baitzen laguntzak emateko honako sektore hauei: turismoa, ostalaritza, gaueko aisialdia, jarduera horiekin lotutako handizkako merkataritza, eta biltzarrak eta batzarrak antolatzeke zerbitzuak. Foru lege-dekretu honek laguntza horien arauketa osatzen du, salbuesten baititu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik eta sozietateen gaineko zergatik.

Bestalde, pandemiaren bilakaera bete-betean ari da eragina izaten Nafarroako kirol federazioek aurreikusitako kirol proiektuetan. Hala bada, programaturiko jarduera asko ezin izan dira egin, arau batzuetan eta besteetan ezarritako murrizketen ondorioz eta administrazio publikoek hartutako neurrien ondorioz, betiere COVID-19ak ekarritako egoera arindu eta kontrolatzeagatik.

Era berean, beste jarduera batzuen iraupena laburtu egin behar izan da. Horrek guztiak nabarmen gutxitu ditu Nafarroako kirol federazioen diru-sarrerak, eta horrek haien funtzionamendu eta helburuei eragin die.

Federazioen borondatearekin zerikusirik izan gabe, ezinezkoa balitz halakoengatik ematen diren dirulaguntzen zati bat jasotzea, horrek kalte ekonomiko handia ekarriko luke eta federazioen beren bideragarritasuna arriskupean legoke.

Hala bada, dirulaguntzen deialdiak bete ahal izateko kirol federazioak sustengatzeko helburua, beharrezkotzat jotzen da oinarri arautzaileak alda-

tzeko aukera ezartzea, ematen diren zenbatekoak aldatu gabe, federazioek zenbateko horiek osorik jasotzea bermatze aldera.

Foru lege-dekretuak bi artikulua, xedapen gehigarri bat eta bi azken xedapen ditu.

Honaino azaldu diren arrazoiek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, behar-beharrezkoa baita aipatu neurriak berehala hartzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bateko ekainaren bian egindako bilkuran hartutako erabakia-rekin bat etorriz,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Jokoaren gaineko tributuek.

Nafarroako Foru Komunitatean Jokoaren gaineko Tributuek arautzen dituen abenduaren 28ko 27/2016 Foru Legearen 9.2 artikulua araberako B motakoak diren makinak (saria duten jolas-makinak) ustiapenetan, %50 murriztuko dira 2021eko bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako kuota.

2. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan salbuestea COVID-19aren ondorioz emandako ezohiko laguntza jakin batzuk.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik eta sozietateen gaineko zergatik salbuesteko dira Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusiaren martxoaren 8ko 18/2021 Ebazpenean ezarritakoaren arabera emandako laguntzak. Ebazpen horren bidez, hain zuzen, deialdi bat onetsi zen, COVID-19ak eragindako kalte ekonomikoak konpentsatzeko laguntzak emateko sektore hauei: turismoa, ostalaritza, gaueko aisialdia, jarduera horiekin lotutako handizkako merkataritza, eta biltzarrak eta batzarrak antolatzeke zerbitzuak.

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako kirol federazioei dirulaguntzak emateko deialdiaren baldintzak aldatzea, 2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako.

Kultura eta Kirol Departamentuak aldatzen ahalko ditu Nafarroako kirol federazioei dirulaguntzak emateko baldintzak, 2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako, partez edo guztiz ezinezkoa bada diruz lagundutako jarduerak gauzatzea edo zerbitzuak ematea, COVID-19aren ondorioz edo administrazio publi-

koek haren aurka hartutako neurrien ondorioz. Gauzatu ezin den zatia aldatuko da, jarduera gauzatzea edo zerbitzua ematea galarazten duen izatezko egoera gertatzen denetik gauzatzen edo ematen berriz has daitekeen unera arte.

Betiere bermatuko da Nafarroako kirol federazioek osorik jasotzen dituztela deialdi horren barnean emandako eta Nafarroako 2021eko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako dirulaguntzak; horretarako, egokitu eginen da dirulaguntzen deialdia edo emateko erabakia.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da, baliozkotu dezan, bat etorri Nafa-

rrako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatuan ezarritakoarekin.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du, bertan aurreikusitako ondorioekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean.

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

